

2006ko  
urria

XXI. mendeko  
Lehen Mailako  
Arreta:  
Hobekuntza-  
estrategiak

# **HOBEKUNTZA-ESTRATEGIAK XXI. MENDEKO LEHEN MAILAKO ARRETAN**

## **SARRERA**

Gure gaur egungo Osasun Sistema Nazionala (SNS), aurrekari historikoak alde batera utzita, ondokoetan oinarritzen da: osasuna babesteko eskubide konstituzionalean, gure Karta Magnan aitortutakoan, 1986. urtean Osasun Lege Orokorrak artikulatu eta garatu zuenean. Harrez geroztik iragan diren 20 urteetan, asko eta oso garrantzitsuak izan dira SNSn izandako aurrerakuntzak eta hobekuntzak, eskubide hori ahalbideratu dutenak. Hala ere, zalantzarik gabe, garrantzitsuenetakoa Osasuneko Lehen Mailako Arretaren erreforma eta garapena izan da, 1984. urtean abian jarritakoa Osasuneko Oinarrizko Egituren Dekretuaren bidez, eredu berri bat diseinatzen zuena, lehen mailako arretaren kontzeptu berri bat, Alma-Ataren (OME-Unicef-en hitzaldia, 1978) Deklarazioan oinarrituta, Lehen Mailako Arretako Taldeak sortzen zituenak, profesional sanitarioek eta ez sanitarioek osatutakoak, zehaztutako lurraldean jarduten zutenak (osasun oinarrizko eremua), eta asistentzia-maila horretatik eman daitezkeen osasun-zainketez arduratzen zirenak.

Aldaketak, lehen mailako arretaren ereduak bildutako hobekuntzak izugarriak izan dira eta aurrekaririk gabeko jauzi kualitatiboa eragin dute populazio espainiarraren osasunaren zainketan. Besteak beste, ondokoak aipatzen dira:

- Familia-Medikuak (espezialitate mediko bezala sortutakoak 1978an), Pediatrak eta Erizainak Lehen Mailako Arretan biltzea, berrikuntza profesionala eta prestakuntza mailaren hobekuntza eragin duena.
- Taldeko lana. Lan indibiduala eta profesionalen arteko inolako konexiorik gabekoa izatetik, taldek olan bihurtzen da: sesio klinikoak, kasuak komunean jartzea, etab.

- Dedikazio osoko lanaldia. Egunean 2 ordu eman beharrean, 7 ordu ematen dira, eta horrek, besteak beste, paziente bakoitzeko batez bestekoa hirukoiztea eragin du.
- Osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko programak biltzea, lehen mailako arretako Taldeen eguneroko eginkizun garrantzitsu eta funtsezko bezala.
- Lehen mailako arretako zerbitzuen kartera ezartzea, herritar guztiei zerbitzu komunak eskaintzeko eta zerbitzu horien kalitatea ebaluatzeko kultura sartzea erraztu duena.
- Erkidegoarekin eta erkidegoarentzat lan egitea. Lehen Mailako Arretako Taldeen jarduerak ez dira gizabanakora mugatu; izan ere, parte diren komunitateekin eta horiek osatzen dituztenen osasunarekin zerikusia duten fenomenoetan eragin handia duten komunitateekin inbrikatu dira.
- Histori aklolikoaren erabilera orokortzea, aurrerapen teknologiko etab estelako antolaketa-hobekuntzekin batera, herritar guztiei lehen mailako arreta erabilerraza, kalitatezkoa, eraginkorra eta herritarren artean asebetetze-maila altukoa eskaintzea ahalbideratu duena.

Azken finean, baieztatu dezakegu osasuneko lehen mailako arreta bikaina dugula, gaur egun, munduko bestelako herrialdeek jarraitu beharreko adibidetzat jotzen dena. Hala ere, egia da azken urteetan lehen mailako arretaren garapen egokia zaildu duten aldagai batzuk agertu direla. Horrela, gogoratu beharra sortutako dago lan zama handia, bereziki, populazioaren handitze eta zahartzearen ondorioz; halaber, gizartea medikatzeko nolabaiteko joera, lehen mailako arreta kontsultetan bisita maiztasun handiagoa eragin duena, ez beti baliabide eta antolaketa egokitzapenaren erantzun beharrezko eta arinari dagokionez. Bestalde, asistentzia zama handiaren ondorioz, osasunaren sustapena eta gaixotasunen prebentzioa bezalako gaiek, lehen mailako arretaren funtsezko seinaleek, profesionalen ohiko jardueretan protagonismoa galtzea eragin du.

Horrez gain, Gobernuako Presidentea den José Luis Rodríguez Zapaterok, osasuna Gobernuaren lehentasun nagusien artean kokatu du, lehen bi Presidenteentzako Konferentziak deituta, ia era monografikoan, Espainiako osasunaren egoerara aztertzeko eta indartzeko eta iraunkor egiteko neurriak proposatzeko. Presidenteentzako II. Konferentziak, 2005eko irailean bildutakoak, bere akordioaren artean, "lehen mailako arretaren baliabideak eta ebazpen-gaitasuna handitzea" bildu zuen.

Autonomia Erkidegoek osasun zerbitzuen eskumenak badituzte ere eta, beraz, euren dagokien horien planifikazioa eta kudeaketa, Osasun eta Kontsumo Ministerioari, bestelako berariazko eskumenen artean, osasunaren koordinazio orokorra dagokio; eta hori da bere egitekoa XXI. mendeko lehen mailako arretarako Estrategia Proiektua sustatzean (LM-21 Proiektua): ahalegina keta borondateak elkartzea, estrategia keta jarduerak koordinatzea, era horretan, Lehen Mailako Arretarako Osasun Sistema Nazionalaren politika komuna diseinatzea.

Horregatik guztiagatik, Osasun eta Kontsumo Sailak koordinatutako adituek, lehen mailako arretarako sozietate zientifikoek, Autonomia Erkidegoek eta Ministerioak berak proposatutakoek, lan taldeak osatu dituzte, urte batez, orain aurkezten diren egoera-azterketaren Dokumentuaren eta XXI. Mendeko Lehen Mailako Arretaren Hobekuntza-Estrategiak Dokumentuaren edukiak eztabaidatu eta adostu dituztenak.

Zalantzarik gabe, Osasuneko lehen mailako arretari bultzada berri bateko unea da, Osasun Sistemaren motor eta herritarraren eragilea izateko bere bokazioa eta borondatea berritzea.

Helburua da, estrategia horien bidez, kalitatezko lehen mailako arreta lortzea, herritarrari begira, ebazpen-gaitasun handikoa eta asistentzia-jarraipena sustatzen duena, profesional motibatu eta gaituekin eta deszentralizatua, partaidetzakoa eta eraginkorra den antolaketarekin.

Hori dela eta, aurkezten diren estrategiek bi ardatz nagusi dituzte: herritarra eta profesionala. Herritarra sistema sanitarioaren ardatz aizan behar da eta, jakina, lehen mailako arretarena; erakunde sanitarioen helburu eta izateko arrazoia da eta, horregatik, bere jarduera guztiak horien beharra keta eskariak asebetetzera bideratu behar dira. Gure bezalako gizartea urreratu eta demokratikoan, herritarrak eragiten dioten prozesuetan parte hartzea eskatzen du, bereziki osasunari buruzkoetan; partaidetza hori ez da paziente izaerara mugatu behar; izan ere, erkidegoaren eremura, Sistema osoaren eta bere erakundeen erabakietara zabaldu behar da. Herritarra Sistema Sanitarioaren parte izan behar da, bere parte sentitu behar da, besteak beste, erarik egokiena delako horren etorkizuna indartzeko eta bermatzeko.

Estrategien beste ardatza profesionalak osatzen dute, erakunde sanitarioen egile eta kudeatzaile nagusiak eta lokarri nagusiena herritarrekin. Horregatik, beharrezkoa da profesional sanitarioak sistemaren parte sentitzea eta erabakiak hartzeko prozesuetan era aktiboan jardutea. LM-21 Proiektuak estrategia motibagarri eta pizgarridunen aldeko apustua egiten du, ekonomia ikuspegitik, zein kudeaketa-autonomiarekin, prestakuntzaren eta ikerkuntzaren sustapenarekin, eta abarrekin zerikusia dutenetatik.

Aipatutako bi ardatzez gain, strategiak hiru helburu "gakotan" oinarritzen dira: kalitatea, ebazpen-gaitasuna eta asistentzia-jarraipena. Sistema publikoak herritarrei eskainitako zerbitzuen kalitatea administrazio sanitarioen helburu etengabea eta ukaezina da, eta ezinbesteko baldintza horien onarpenerako. Kalitatearen aldeko apustua integrala izan behar da, osagai zientifikoak eta teknikoak ez ezik, erabilerraztasuna, baliabideak,

antolaketa eta partaidetzarekin ere zerikusia duten osagaiak bilduta, era horretan, erabiltzaileak Sistemaren ardatza dela antzemateko.

Ebazpen-gaitasuna, eraginkortasuna antolaketa sanitarioaren berezko elementua da, baina bereziki lehen mailako arretaren eremuan, eta horretatik populazioaren osasun-arazoan gutxienez %85 ebatzi behar dira. Eraginkortasuna hobetzeko beharrezkoak dira gaitasun diagnostikoa eta terapeutikoa handitzeko estrategiak, besteak beste, profesionalen prestakuntza hobetuta, horien frogak eta teknologiarekiko erabilerraztasuna handituta, etab. Gida klinikoa egitea eta abian jartzea estrategia horien beste funtsezko elementuetako bat da.

Asistentzia-jarraipena, gailu sanitario desberdinen arteko koordinazioa eta, bereziki, lehen mailako arreta eta arreta espezializatuaren artean, beti aipatzen den funtsezko helburua da, baina ez beti ondo ebatzen dena. Asistentzia-jarraipenaren hobekuntza-estrategiak Osasun Sistema Sanitarioak duen erronka nagusienetako bat da hurrengo urteetarako. Horregatik, beharrezkoa da lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko koordinazio eta komunikazioko politikei heltzea, asistentzia-prozesuak biltzeko, era horretan, herritarrak, bere zainketa eta tratamenduan jarraipen-ebazpenik antzeman ez dezan. Osasun publikoko gailuekiko koordinazioa eta koordinazio sozio-sanitarioan ere, politika aktiboak garatu beharra dago jardura sanitarioak ahalik gehien errentagarri bihurtzeko.

Beste estrategia-bloke garrantzitsua lehen mailako arretako antolaketaren hobekuntza oinarritzen da, zeharkako eta instrumentala den helburua, eskuragarri diren baliabideak optimizatzeko eta kudeaketa tresnak hobetzeko, era horretan helburuak lortzeko, lehen mailako arreta eraginkorrago aizan dadin.

Beraz, estrategiak eta jarduera-ildoak hobekuntzako 5 estrategia-eremu handitan bildu dira:

- A. Herritarrei zuzendutako zerbitzuen kalitatea hobetzeko estrategiak.
- B. Eraginkortasuna eta ebazpena hobetzeko estrategiak.
- C. Asistentzia-jarraipena hobetzeko estrategiak.
- D. Partaidetza eta garapen profesionala hobetzeko estrategiak.
- E. Eraginkortasuna, kudeaketa eta antolaketa hobetzeko estrategiak.

Hemen aipatutako estrategiak hurrengo urteetan egia bihurtzeko, inplikaturako guztien konpromisoa beharko da (Osasun eta Kontsumo Ministerioa, Autonomia Erkidegoak, profesional sanitarioak eta ez sanitarioak, herritarrak, etab.).

# A. HERRITARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUEN KALITATEA HOBETZEKO ESTRATEGIAK

## 1. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETA HERRITARREN OSASUN-AGENTZIA BIHURTzea SUSTATZEA

**Helburua:** Baliabideen koordinazioa sustatzea arreta sanitarioaren jarraipena eta luzeratakoa bermatzeko.

### Jarduera-ildoak

- Lehen mailako arretaren egitekoa sustatzea, baliabide sanitarioen koordinatzaile eta sisteman sortutako paziente joan-etorrien arautzaile.
- Lehen mailako arretan mailaz maila trebetasun eta baliabide egokiak garatzea agentzia-eginkizun hori burutzeko.
- Familia-medikuntza, pediatria eta erizaintzako profesionalek Osasun Sistema Nazionalaren erabiltzaileen osasun-eragile jardutea sustatzea, osasun-beharrei erantzuteko baliabideak gidatzeko eta koordinatzeko.
- Herritarrek euren osasun-eragilea aukeratzeko eskubidea sustatzea, betiere sistema sanitarioaren funtzionamendu egokia bermatzen duten mugetan.

## 2. ESTRATEGIA: ZERBITZUEN ANTOLAKETA ERABILERRAZTASUNA HOBETZERA BIDERATZEA

**Helburua:** Erabiltzaileen zerbitzu sanitarioekiko sarbidea hobetzea.

### Jarduera-ildoak:



- Agenden kudeaketa optimizatzea eta erabiltzaileen etorriak ordenatzea, "agenda adimentsuen" erabilera sustatuta, herritarren beharretara egokituta.
- Teknologien erabilera sustatzea, besteak beste, telefonoa edo posta elektronikoa, kontsulta-prozesuetarako; halaber, zitazio elektronikoa sustatzea.
- Zerbitzuak egokitzea eta malgutzea erabiltzaileei kalitatezko prestazio sanitariorako sarbidea bermatzeko, bereziki gizarte maila desberdinetakoei eta laguntzarik gabeko kolektiboetakoak direnei.
- Aurretiatzko zitazioaren eskaintza osasun-zentro guztietan orokortzea.

### **3. ESTRATEGIA: GIZA BALIABIDEEN DOTAZIOA ETA KONTSULTEN ANTOLAKETA EGOKITZEA, ARRETA EGOKIA IZATEKO, LEHEN MAILAKO ARRETAN ITXARON ZERRENDARIK EZ IZATEA BERMATZEKO.**

**Helburua:** Kontsulta-denbora nahikoa bermatzea pazienteak artatzeko.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Pertsonal sanitario eta ez sanitarioaren baliabideak egokitzea, profesionalen jarduera-profilera egokituta eta ondoko irizpideetan oinarrituta: demografikoak, maiztasuna, sozialak (maila sozioekonomikoa, immigrazioa), banaketa geografikoa eta irlatartasuna, eta paziente sailkapenaren erabilera ezarrita baliabideen aurreikusitako kontsumoaren arabera ("casemix").
- Kontsulten antolaketa eta kupoen tamaina kudeatzea profesionalak beharrezko denbora izateko paziente bakoitzarekin, betiere eragin negatiborik ez badu arretak berandutzean.
- Taldeen antolaketa-eraginkortasun hobetzea lan-zamen banaketaren bidez.

#### **4. ESTRATEGIA: UNITATE ADMINISTRATIBOAK LEHEN MAILAKO ARRETAKO TALDEEN ANTOLAKETA-EGITURAN BILTZEA**

**Helburua:** Unitate administratiboen antolaketa sustatzea herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzeko.

##### **Jarduera-ildoak:**

- Unitate administratiboak "leihatila bakarra bihurtzea " lehen mailako arretako izapidetze guztien informazio eta kudeaketarako eta herritarrek behar dituen sistema sanitarioarekiko bestelako kudeaketetarako.
- Mailaz maila informazio-teknologia berriak ezartzea atazak desburokratizatze eta erabiltzaileekin kudeaketa-eginkizuna arintzeko.
- Unitate administratiboetako arduradun edo zuzendarien figurak aitortzea.

#### **5. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAREN IRUDIA SUSTATZEA, KALITATEZKO ETA KONFIANTZAZKO SISTEMA BEZALA, HERRITARREN OSASUN-ARAZOAK KONPONTZEKO.**

**Helburua:** Herritarren aurrean, lehen mailako arretaren irudia indartzea.

##### **Jarduera-ildoak:**

- Marketin-estrategiak garatzea lehen mailako arretaren irudia eta herritarren profesionalengan duten konfiantza indartzeko.
- Gizarteari lehen mailako arretako zerbitzu-karterari, lan-prozedurei eta emaitzei buruzko informazio egokia eskaintzea.
- Osasun mailako zerbitzu eta emaitzen ebaluazioa herritar guztiek ezagutzea sustatzea.
- Lehen mailako arretan pazientearen ezaguera eta segurtasun-kultura sustatzea.

## **6. ESTRATEGIA: HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA SISTEMA SANITARIOAN ETA LEHEN MAILAKO ARRETAN.**

**Helburua:** Erabiltzaileen egitekoa sustatzea sistema sanitarioan.

### **Jarduera-ildoak:**

- Gizarte kontrola sustatzea osasun-plangintzen garapenaren gainean, herritarrei aldizkako informazioa eta gardena emanda: osasun-beharrak, eskuragarri diren baliabideak, zerbitzu-eskaintza eta lortutako emaitzak.
- Osasun-eremuetan edo zehazten den lurraldean, gizarte partaidetzako kontsulta-organoak formalizatzea, erabiltzaileak ordezkatzeko elkarteak eta erakundeak bilduta; halaber, tokiko administrazioak, planifikazio, antolaketa eta zerbitzuen horniketaren gainean eztabaidatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.
- Erabiltzaileen asebetetze-maila biltzea, kalitatearen ebaluazio-kalitatetzat.
- Erakundearen lidergo-eredua sustatzea, herritarren partaidetzaren gainean profesionalen jarrera positiboa sortzeko.

## **7. ESTRATEGIA: HERRITARREN AUTONOMIA ETA EUREN OSASUNAREN GAINEAN ERABAKITZEKO GAITASUNA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Erabiltzaileari bere osasunaren gaineko erabakiak hartzea erraztea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Tresnak sustatzea, herritarrei guztiei, informazio zehatza eta independentea eskaintzeko osasunaren lehentasuneko alderdiei eta sistema sanitarioarekiko eskubide eta betebeharrei buruz.

- Profesionalek pazienteari emandako informazioa hobetzea, erabakiak hartzeko unean aholkatzeko eta laguntzeko, bere osasunarekiko erantzukizun handiago aizan dezan.
- Profesionalen eta pazienteen osasunari buruzko erabaki partekatuak sustatzea.

## **8. ESTRATEGIA: AUTOZAINKETAK SUSTATZEN ETA PRAKTIKA SANITARIOAREN GEHIEGIZKO MEDIKALIZAZIOA ALDATZEN DITUZTEN JARDUERAK GARATZEA.**

**Helburua:** Kalitatezko auto-zainketak sustatzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Osasunerako hezkuntza-jarduerak sustatzea, auto-zainketak eta bizimodu-aldaketak sustatuta, beharrezkoa ez den medikalizazioaren kalterako.
- Herritarrei medikamentuen erabileraren onurei eta arriskuei eta prozedura diagnostiko eta terapeutikoei buruzko informazio independentea erraztea.
- Profesional eta kudeatzaileei zuzendutako prestakuntza-programa guztietan praktika sanitarioaren medikalizazioa murrizteko joera kontuan hartzea.

## **9. ESTRATEGIA: ZERBITZU-KARTERA OPTIMIZATZEA HERRITARREN OSASUN-BEHARREKIKO ERANTZUNA HOBETZEKO.**

**Helburua:** Zerbitzu-kartera herritarren beharretara egokitzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Herritarren benetako beharrak aldizka identifikatzea, zerbitzu-eskaintza aldaketa demografiko, epidemiologiko, kultural eta teknologikoetara egokitzeko.

- Kartera aldizka eguneratzea, eraginkortasuna eta efizientzia erakutsita duten zerbitzuak bilduta.
- Lehen mailako arretako eta arreta espezializatutako zerbitzu-karteraren helburuak osasun publiko eta arreta soziosanitariokoekin harmonizatzea.
- Lehen mailako arretan euren segurtasuna, efikazia, eraginkortasuna eta efizientzia erakutsita duten teknologia berriak laster ezartzea

## **10. ESTRATEGIA: OSASUNA ETA PROMOZIONATZEKO INDARTZEKO JARDUERAK SUSTATZEA.**

**Helburua:** Lehen mailako arretan eskainitako osasun eta prebentziorako promozio-zerbitzuak hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Zerbitzu-eskaintzan prebentzio eta osasuna sustatzeko jarduerak biltzea sustatzea, ebidentzia zientifiko eta eraginkortasun irizpideen arabera.
- Lehen mailako arretan, Autonomia Erkidegoetako osasun-adierazleetan eta Osasun Sistema Nazionalarenetan egindako prebentzio jardueren adierazleak biltzea.
- Lehen mailako arretako taldeen inplikazioa sustatzea prebentzio eta osasun sustatzeko jardueretan, profesionalak egiteko denbora egokia izango dutela bermatuta, kontsultan zein erkidegoan.
- Profesionalen eguneratze sistematikoa sustatzea osasunaren sustapen eta hezkuntzan; halaber, alderdi epidemiologikoetan.

## **11. ESTRATEGIA: ARRETAREN KALITATEA SUSTATZEA LANDA GUNEKO LEHEN MAILAKO ARRETA TALDEETAN.**

**Helburua:** Kalitatea hobetzea landa gunean eta isolatutako zonaldeetan.

**Jarduera-ildoak:**

- Landa guneko kontsulta eta larrialdi guneei ekipamenduak eta informazio-sistemak eskaintzea, ebazpen-gaitasuna, arreta espezializatutako interkontsulta eta garraio sanitario eredu eraginkorra bermatzeko.
- Landa guneko erabiltzailearekiko arreta-zerbitzuetako teknologia hobetzea, interkomunikazioa eta kudeaketa-funtzioak errazteko.
- Isolamendu eta dispertsio baldintzetan diharduten profesionalen ikerkuntza eta prestakuntza jarduerak positiboki diskriminatzea.
- Pizgarri profesionala sustatzea egonaldia eta laneko egonkortasuna laguntzeko, eta landa guneko zerbitzuen eskaintza hobetzea.

## **B. ERAGINKORTASUNA ETA EBAZPENA HOBETZEKO ESTRATEGIAK**

### **12. ESTRATEGIA: EREMU SANITARIOAN ESKURAGARRI DIREN FROGA DIAGNOSTIKOAK ERABILERRAZ BIHURTZEA LEHEN MAILAKO ARRETAKO FAKULTATIBOENTZAT.**

**Helburua:** Lehen mailako arretako gaitasun diagnostikoa hobetzea.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Froga diagnostikoen eta oinarrizko ekipamenduen katalogoa ezartzea, lehen asistentzia-mailako edozein puntutatik sarbidea bermatuta, mailaz maila teknologia diagnostiko berriak biltzeko aukera eskainita, lehen mailako arretan eraginkor aplika daitezkeenak.
- Protokolo eta gidak egitea froga diagnostikoen arrazoizko erabileraren irizpideak zehazten dituztenak.
- Froga diagnostikoen arrazoizko erabilera aldizka ebaluatzea sistema sanitarioaren bi mailetan

### **13. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAKO INFORMAZIO- TEKNOLOGIAK HOBETZEA.**

**Helburua:** Pazienteen informazio sanitarioaren maila arteko sarbidea, kudeaketa eta komunikazioa hobetzea.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Osasun-zentro eta inguruko kontsulten informatizazioa osatzea, ospitale mailarekiko konexio telematikoa barne.
- Informazio partekatua duen histori akloliko elektronikoa sustatzea asistentzia-maila desberdinen artean, informazioaren konfidentzilasuna eta sekretu profesionala bermatuta.

- Osasun-zentroetatik, informatizatutako bideen bidez, froga diagnostiko eta azterketa kliniko garrantzitsuetarako sarbidea erraztea, sistema sanitarioaren edozein eremutan egindakoetara (ospitale alden txostenak, kanpo-kontsulten txostenak, erizaintzako alta txostenak, tratamenduak, etab.).
- Sistema informatikoak hobetzea burokrasia murrizteko eta asistentzia, irakaskuntza eta ikerkuntza kalitatea hobetzeko jarduerak errazteko.
- Profesionalek baliabide teknologikoak erabiltzea sustatzea, pazientearen etxetik agendara eta historia klinikora sarbidea izateko.

#### **14. ESTRATEGIA: ERAGINKORTASUN HOBETZEA PROFESIONAL SANITARIOEK GARATUTAKO PROZEDURA ADMINISTRATIBOETAN.**

**Helburua:** Ebazpen-gaitasuna handitzea.

##### **Jarduera-ildoak:**

- Errezeta-dokumentuak asistentzia-ikuspegiarekin birdiseinatzea, egoki iritzitako epealdian pazienteari agindutako botika guztiak preskribitzeko (multipreskripziozko errezeta).
- Errezeta elektronikoa abian jartzea, ondokoak bitzen dituenak: multipreskripzioa, aldi baterako preskripzioa, komunikazioa telematikoa farmaziarekin eta onespina prozedura elektronikoan.
- Aldi baterako ezintasuneko prozesuen kudeaketa hobetzea, izapidetze administratiboak erraztuta eta ABEn preskripzioaren kalitatea hobetuta.
- Asistentzia-maila bakoitzak bere jarduerak eragindako prozedura administratiboak kudeatzea bermatzea (aldi baterako ezintasuna, programatutako berrikuspenak, garraio sanitarioa, frogak, etab.).



## **15. ESTRATEGIA: ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA PATOLOGIA KRONIKOEN ARRETAN.**

**Helburua:** Paziente kronikoen arreta hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Estrategiak sustatzea era integralean prebalentzia handiena duten patologia kronikoei aurre egiteko, alderdi prebentiboak, diagnostikoak, terapeutikoak, birgaitzekoa keta soziosanitarioak kontuan hartuta.
- Polimedikatutako pazienteen jarraipen-ereduak diseinatzea, atxikidura terapeutikoa sendotzeko eta segurtasun maila altua bermatzeko medikamentuen arriskuen aurrean.
- Farmazia-arreta sustatzea kalitate handiagoa lortzeko tratamendu kronikoen kontrol eta jarraipenean.

## **16. ESTRATEGIA: PRAKTIKA ONEN GIDA KLINIKOAK ETA INFORMAZIO-TRUKAKETAK EGITEA ETA EZARTZEA SISTEMA SANITARIOAN OROKORTZEKO.**

**Helburua:** Praktika klinikoa hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Ebidentzian oinarritutako medikuntza-irizpideekin egindako praktika-gidak izatea, horiek eguneratzeko prozedurak ezarrita.
- Kontsultako informazio-sistemak ezartzea, informazio zientifiko garrantzitsuenera linea bidezko sarbidea izateko.
- Gida klinikoena oinarritutako etengabeko prestakuntza sustatzea.
- Gida klinikoak ezartzera zuzendutako estrategiak garatzea; halaber, horiek ezartzeak duen eraginaren ebaluazioa.
- Profesionalen artean informazioa eta ezaguerak trukatzeko jarduerak ezartzea, praktika onenen ikaskuntza ahalbideratzeko.

## **17. ESTRATEGIA: MEDIKAMENTUEN ARRAZOIZKO ETA KALITATEZKO ERABILERA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Kalitatezko farmazia-preskripzioa lortzea

### **Jarduera-ildoak:**

- Ebidentzia zientifikoan oinarritutako kalitate-adierazleak egitea medikamentuen arrazoizko erabilera ebaluatzeko.
- Prebalentzia handiena duten osasun-arazoek gida kliniko eta terapeutiko bateratuak egitea eta ezartzea arreta-eremu desberdinetan.
- Farmazia-industriaren interesguneak independenteak diren osasun mailako emaitzen gaineko ikerkuntza-planak garatzea, aukera terapeutiko desberdinak erabilita.
- Informazio-sistemak eta teknologi aberriak garatzea profesionalen preskripzioaren kalitatea hobetzeko tresnak izateko.
- Praktika klinikoak hobetzen duten prestakuntza-plan independenteak sustatzea.
- Lehen mailako arretako farmazialarien jarduerak sustatzea arrazoizko erabileraren eta preskripzioaren arduradunen lan bateratuaren eremuan.
- Esperientzia pilotuak baloratzea, medikuntza eta erizaintzako profesionalen partaidetza biltzen dutenak medikamentuen preskripzioan.

## **18. ESTRATEGIA: OSASUN-EMAITZEN EBALUAZIOA ETA HEDAPENA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Lehen mailako arretako emaitzak ebaluatzeko sistemak hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Osasun-zerbitzuek lehen mailako arreta, ospitale eta bateratuetako osasun-emaitzen ebaluazioa egitea sustatzea.

- Administrazioek eta elkarte profesional eta sanitarioek osasun-emitzen azterketak jakinaraztea sustatzea.
- Emitzen gaineko informazioa ulergarria, erabilerraza eta auto-azalpenekoa izatea sustatzea.
- Osasun-zerbitzuek osasuneko eremu eta oinarrizko zonalde mailan datu klinikoen oinarrien ustiapen deszentralizatua egitea sustatzea, eta horrek prestakuntza-estrategietan eta pizgarri-profesioaletan eragitea.
- Lehen mailako arretako eta ospitaleko datuen integrazioa hobetzea, profesionali emitzen auto-ebaluazioa errazteko.

## **19. ESTRATEGIA: PROFESIONAL ETA HERRITARREI ZUZENDUTAKO OSASUN-EMAITZAK NEURTZEKO ERREFERENTZIAKO SISTEMA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Osasun-emitzen homogeneotasuna eta bateragarritasuna hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Lan taldea osatzea, lehen mailako arretako, arreta espezializatuko, soziosanitarioko eta osasun publikoko elkarte zientifikoek partaidetzarekin, osasun-emitzak neurtzeko erreferentzia-sistema sustatzeko helburuarekin.
- Ustiapen-sistemetan homogeneotasun zurruna sustatu beharrean, oinarrizko homogeneotasuna sustatzea adierazleen definizioan.
- Adierazleak lortzea sustatzea, eremu espezifikoetan lortutako emaitza partzialen balorazio bateragarria egiteko.
- Osasun-emitzen adierazle sintetikoek definizioa sustatzea.

## **C. ASISTENTZIA-JARRAIPENA HOBETZEKO ESTRATEGIAK**

### **20. ESTRATEGIA: ASISTENTZIA-JARRAIPENA LAGUNTZEN DUTEN LEHEN MAILAKO ARRETAKO ETA ARRETA ESPEZIALIZATUKO ERAKUNDEEN ALDAKETAK SUSTATZEA.**

**Helburua:** Asistentzia-jarraipena hobetzea.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Osasun eta asistentzia helburu komunak ezartzea lehen mailako arreta eta arreta espezializaturako.
- Informazio-sistema baliagarria sustatzea, mailen arteko koordinazio eraginkorra bermatzeko eta emaitza gakoak partekatzeko, datu kliniko nabarien konfidentzialtasuna gordeta.
- Lehen mailako arretatik interkontsultak kudeatzea arreta espezializatuarekin, lehen mailako arretako familia-medikuen eta pediatren benetako gaitasuna sustatuta, sistemaren osasun-eragile bezala, zerbitzu espezializatuak aukeratzeko.
- Prestakuntza eta ikerkuntzako jarduera mistoak sustatzea.
- Asistentzia-maila bakoitzerako antolaketa zehaztua mantentzea.

### **21. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAREN ETA ARRETA ESPEZIALIZATUAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Asistentzia-mailen arteko komunikazioa hobetzea.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko koordinazio-zirkuituak sortzea eta bilgune-eremuak erraztea,

profesionalen arteko harreman formal eta informaletarako (sesio klinikoak, profesionalen bilerak, kalitatearen etengabeko hobekuntza-taldeak, lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zuzendarien bilerak, etab.).

- Bi asistentzia-mailetarako partekatutako histori akloliko elektronikoen erabilera sustatzea, aurretiaz eduki komunak zehaztuta.
- Beharrezko baliabideak izatea profesionalen arteko komunikazioa (pertsonea, telefonikoa, informatikoa, etab.) eta informazio kliniko errazteko, osasun-zentroaren eta ospitalearen arteko euskarri digitalen bidez.
- Telemedikuntzaren sustapena garatzea ondoko bidez: interkontsultak posta elektronikoz, telefonoz, online bidez, konferentzia anitzak, etab.

## **22. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAN ETA ARRETA ESPEZIALIZATUAN INTEGRATUTAKO ASISTENTZIA-PROZESUEN KUDEAKETA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko koordinazioa hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Maila arteko integratutako prozesuen bidez kudeaketa erraztea, "egintza bakarreko kontsultak " lagunduta eta partekatutako praktika klinikoko gidak erabilia.
- Adierazle komun ebaluagarri eta alderagarrien erabilera sustatzea.

## **23. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETATIK ETA OSASUN PUBLIKOTIK EGINDAKO JARDUEREN KOORDINAZIOA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Osasun publikoaren zerikusia duten prestazioak hobetzea.

**Jarduera-ildoak:**

- Osasun publikoko zerbitzuen eta lehen mailako arretaren sarearen arteko lotura zuzen eta koordinazio estrategikoko formulak ezartzea, osasun publikoan eskumena duten tokiko administrazioen jarduerak bilduta.

**24. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAN HERRITARRENGAN KONFIANTZA SORTZEN DUTEN ARRETA-JARRAIPEN/URGENTZIA EBAZPEN-EREDUAK SUSTATZEA.**

**Helburua:** Urgentzietako arreta kalitatea hobetzea.

**Jarduera-ildoak:**

- Urgentzia-ereduak sustatzea, herritarren beharretara egokitutakoak erabilerraztasuna eta ebazpenari dagokienez.
- Urgentzietako arretaren lurralde antolaketa hobetzea ospitalearekin koordinazioan.
- Urgentzietan profesional sanitarioak inplikatzeko, lehen mailako arretako taldearen jarduerekin bateragarriak diren antolaketa-ereduen bidez.

**25. ESTRATEGIA: ERKIDEGOKO JARDUERAK SUSTATZEA LEHEN MAILAKO ARRETATIK.**

**Helburua:** Lehen mailako arretatik eskainitako erkidegoko partaidetza eta erkidegoari emandako arreta sustatzea.

**Jarduera-ildoak:**

- Osasun Batzordeak eta euren jarduerak eratzea sustatzea, gizarte eragile guztiak inplikaturik, osasun eremuetan, barrutietan edo beharrezkoa irizten denekoan.

- Osasunerako hezkuntzako sektore anitzeko proiektuak ezartzea orokortzea, arrisku-praktikak dituzten kolektibo edo norbanakoei zuzendutakoak, bizimodu aldaketetara edo osasun-arazoak hobetzera bideratutakoak.
- Osasun-zentroetatik erkidegoari zuzendutako jarduerak egitea sustatzea.

## **26. ESTRATEGIA: ETXEKO ARRETA KO ETA MENDEKOTASUN ARAZOA DUTEN PERTSONEN ARRETA KO PROFESIONALEN INPLIKAZIOA HANDITZEA.**

**Helburua:** Etxeko arreta hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Etxeko arretako ekintza-planak sustatzea, lehen mailako arretatik exekutaturakoak, mendeko pertsona eta euren zaintzaileekiko arreta-sanitarioko helburuak zehazten direnekoak.
- Plan horien eta bestelako gailu sanitarioen eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa sustatzea (etxeko ospitaleratzea).
- Etxeko arreta-sanitarioan, ondokoentzako zainketa sanitarioak biltzea: mendeko pazienteak, ezindu handiak, nahasmen mental larria duten pazienteak, nerabe eta gazte ezinduak, eta egoera terminalean diren pazienteak.
- Lehen mailako arretatik, osasun sustatzeko, mendekotasun eragiten duten egoerak prebenitzeko, eta gaitasuna mantentzeko eta berreskuratzeko jarduerak orokortzea eguneroko jardueretarako.
- Etxeko arreta-programetan mendekotasuna duten zaintzaileen behar psikosozialen arreta biltzea.
- Etxeko arreta-programetan ondokoak biltzea: nutrizio enterala duten pertsonen arreta, arnas terapiak eta bestelako teknika fisioterapeutikoak.

## **27. ESTRATEGIA: KORDINAZIO SOZIOSANITARIOA HOBETZEA.**

**Helburua:** Erabiltzaileekiko arretan zerbitzu sanitarioen eta gizarte zerbitzuen kooperazioa hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Asistentzia, koordinazioa eta komunikazioaren erkidegoko ikuspegia sustatzea arreta soziosanitarioan inplikaturako administrazioen artean.
- Komunikazio eta hedapen politikak laguntzea sektore sanitario eta sozialetan, konpromiso bateratuak hartuta.
- "Kasuen kudeatzailea " figura sustatzea eremu sanitarioan, pertsona bakoitzaren banakako arretaren koordinazioaz arduratzen dena.
- Gaixo eta familia artekoen elkarten partaidetza laguntzea auto-zainketako programetan.
- Sistema sanitarioaren (lehen mailako arreta), erakundeen (udalak) eta etxeetan jarduerak burutzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeen ekintzen bateragarritasuna sustatzea.
- Gizarte-langilearen figura sustatzea lehen mailako arretan koordinazio soziosanitarioa hobetzeko.



## D. PATAIDETZA ETA GARAPEN PROFESIONALA HOBETZEKO ESTRATEGIAK

### 28. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO TALDEETAN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA-JARDUERA LAGUNTZEA.

**Helburua:** Profesionalen kualifikazioa mantentzea eta hobetzea.

**Jarduera-ildoak:**

- Taldearen etengabeko prestakuntzako programak sustatzea eta finantzatzea, helburu instituzionalak, profesionalen prestakuntza-eskaerak eta herritarren osasun-beharrak bateratuta.
- Osasun-zentroen etengabeko prestakuntza sustatzea ondoko mekanismoen bidez: asistentziako liberazio partzialak, denbora-erreserbak, prestakuntza-tresnetarako doako sarbidea eta Internet bidezko argitalpenak.
- Prestakuntza-ekintza sustatzea (sesio klinikoak eta tailerrak) osasun-zentroan bertan.
- Prestakuntza plan indibidualak eta trebetasuna hobetzekoak sustatzea, profesional bakoitzarentzat ebaluazio-tresnak bilduta.
- Prestakuntzak praktika klinikoaren hobekuntzan duen eraginaren ebaluazio-azterketak sustatzea.
- Sustatutako birregiaztagiriratzeko sistema ezartzea (litekeena da karrera profesionalari lotuta) eta borondatezkoa.
- Irakasle-profesionalen errekonozimendua erraztea ondokoen bidez: irakaskuntzako berariazko denborak, helburu espezifikoak kudeaketa-kontratuetan, tutoretzetako pizgarri ekonomikoak, karrera profesionalaren balorazioa eta ekipamendu laguntza.

- Osasun mailako irakaskuntza-egiturak sortzea eta mantentzea; eta irakaskuntzako bestelako egiturekiko koordinazioa ezartzea, ospitalea edo unibertsitatea, esaterako.
- Prestakuntza-espezialisten eta aurre-graduako ikasleen txandaketak sustatzea lehen mailako arretan.
- Lehen mailako arretaren berezko edukiak sustatzea medikuntza eta erizaintzako kurrikuluak diseinatzean eta lehen mailako sailak sortzea unibertsitatean.
- Unitate administratiboetako profesionalen prestakuntza eta gaitasuna komunikazio eta teknologia informatikoko trebetasunetara bideratzea,
- "On line" bidezko prestakuntza-jarduerak garatzea sustatzea zentro isolatuetako prestakuntza hobetzeko.

## **29. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETA TALDEETAN IKERKUNTZA-JARDUEREN GARAPENA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Lehen mailako arretan osasun-arazoen ezaguera hobetzea.

**Jarduera-ildoak:** lehen mailako arretako ikerkuntza sustatzea.

- Lehen mailako arretan ikerkuntzako egitura, talde eta sare egonkorak sustatzea, ospitale, unibertsitate edo bestelakoekin elkarerraginean eta harremanetan izateko.
- Ikerkuntza-metodologian prestakuntza erraztea, aurre-gradu zein gradu-ondo prestakuntzan, eta baita etengabeko prestakuntzan ere.
- Ohiko praktikan ezbaiak ebazteko eta emaitza klanaren benetako baldintzetara aplikatzea errazten duten planteamenduak saritzea.
- Lehen mailako arretaren kudeaketarekiko ikerkuntza-proiektuak sustatzea.
- Ikerkuntzako berezko denborak aitortzea erraztea, kudeaketa-kontratuaren helburuetan bilduta.

- Ikerkuntza-jarduera karrera profesionalean aitortzea sustatzea.
- Finantzazioko bide espezifikoak ezartzea lehen mailako arretako lehentasuneko osasun-arazoak ikertzeko, ondokoetatik eratorritako fondoekin: erkidegoetako osasun-zerbitzuak, sailak, ikerkuntza-agentziak eta elkarte profesionala keta elkarte zientifikoak.
- Ikerkuntzarako giza baliabideak partzialki liberatzea eta kontratazio eta lan-harreman formula malguak sustatzea, ikerkuntzara dedikatzeke eta bekadunak prestatzeko planak garatzeko.

### **30. ESTRATEGIA: PROFESIONALEN MOTIBAZIOA HANDITZEA ETA LANEKO GIROA HOBETZEA.**

**Helburua:** : Motibazio profesionala hobetzea

#### **Jarduera-ildoak:**

- Karrera profesionalean meritu profesionalen aitortzea, atzekiko inplikazioa eta laneko etengabeko hobekuntza aitortzea.
- Karrera profesionala Autonomia Erkidego desberdinen arteko koherentzia-irizpideekin garatzea, profesionalak parte hartuta horiek egitean eta ebaluatzean.
- Pizgarri ekonomikoko sistemak sustatze ataldeko profesional guztientzat, emandako arretaren kalitatearen arabera (ebalua daitezkeen hobekuntza karreta-zerbitzuan, osasun-emaitzak eta herritarren asebetetzea) eta baita dedikazio profesionalaren arabera ere.
- Pizgarriak sustatzea, informazio-sistemen bidez ebalua daitezkeen adierazleen bidez, banakako et ataldeko jarduerak monitorizatzen dutenak, eta birdefinitu daitezkeenak osasun edo erakundearen behar beharrei dagokienez.
- Osagai aldagarria duen ordainsari mistoen ereduak sustatzea, helburuak lortzearekin zerikusia duena.

- Ekonomikoa kez diren pizgarriekin motibazioa sustatzea: etengabeko prestakuntza erraztea, lan-baldintzak hobetzea, baliabideak hobetzea, autonomia handiagoa erabakiak hartzeko, lanaren antolaketan parte hartzea hobekuntza-taldeen bidez, teknologiarako sarbidea, malgutasun handiago ataldeak osatzean, etab.
- Talde komunen helburuak sustatzea, eginkizunak argituta eta lan-zamakerak era orekatuan banatuta.
- Osasun-zentroko zuzendari-kudeatzailearen figura sustatzea, partaidetzako lidergoa eginkizuna lagunduta, jarduerak banatzeko eskumen exekutibo zabalagoa eskainita, zentroko erabakiak hartzeko eta liskarrak bideratzeko autonomia handiagorekin.
- Jarduerak garatzea, marketin estrategiak bilduta, ondokoak sendotzeko: antolaketa-giroa, kohesioa, motibazioa, asebetetzea eta lehen mailako profesionalak parte direla sentiaraztea.
- Laguntzako programa espezifikoak ezartzea bereziki zentro liskartsuetan eta mehatxuak edo erasoak jasaten dituzten profesionalentzat.

### **31. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAKO TALDEEN LANA SUSTATZEA GIZARTE ETA OSASUN ARRISKU HANDIENA DUTEN ERKIDEGOETAN.**

**Helburua:** Gizarte eta osasun arrisku handiena duten erkidegoen arreta hobetzea.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Ebaluazio-sistemak ezartzea, adierazle ekonomiko eta zerbitzuen erabilerakoen bidez, arrisku handia edo gizarte bazterketa duten erkidegoetako osasun beharrak identifikatzeko
- Baliabide horniketa egokitzea, profesionalen egonaldia laguntzea eta arrisku handiko erkidegoetan lan egiten duten lehen mailako arretako taldeak laguntzea.

- Diziplina anitzeko orientabidea sustatzea, integrala eta inguruaren ezaugarrietan integratutakoa, baliabide materiala keta legalak erraztuta ondokoen koordinazio eraginkor eta arinerako: osasun-zerbitzuak, hezkuntzakoak, elkartea keta herri-liderrak, eta gizarte arrisku handiko erkidegoetako gizarte zerbitzuak.
- Erabiltzaileei eskainitako zerbitzuak eta informazioa arrisku handiko erkidegoaren beharretara egokitzea.

## **32. ESTRATEGIA: GAITASUN PROFESIONALAREN ETA ZENTROEN KALITATEAREN EBALUAZIOA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Gaitasun profesionala eta zentroen kalitatea hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Egiaztapen-sistemak garatzea, lehen mailako arretako zentro eta profesionalen kalitate-irizpideak zehazten dituztenak.
- Garapen profesionala egiaztatzeko profesional desberdinen ekimenak aitortzea, zentroek edo ospe handiko erakundeek kontrastatutako metodologiaren bidez.
- Sistema horien garapena bermatzen duten finantza-baliabideak esleitzea.
- Ebaluazio eta etengabeko prestakuntzako tresnak garatzeko ekimenak sustatzea eta laguntzea, ECOE eta Portafolio esaterako.
- Irizpide egokiak zehaztea profesionala keta taldeak egiaztatzeko eta birregiaztatzeko, aditu eta elkarte zientifikoek parte hartuta.
- Prozesu eta metodologia egokiak ezartzea, profesional et atalde guztien berregiaztapenerako sarbidea errazteko.
- Gaitasun profesionala zerbitzuen eskaintzara egokitzea sustatzea.

## **E. ERAGINKORTASUNA, KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA HOBETZEKO ESTRATEGIAK.**

### **33. ESTRATEGIA: SISTEMA SANITARIOAREN EGITURA GUZTIETAN ERAGITEN DUEN ERABATEKO KALITATEKO EREDUA OROKORTZEA.**

**Helburua:** Kalitatearen hobekuntza.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Sistema sanitarioaren beharretara ondoen egokitzen den kalitate-eredua ezartzea.
- Jarduerearen azken produktua zehazten duten prozesuak identifikatzea, eta profesionalak orohar onartutako kalitate-adierazleak aukeratzea.
- Aurrekontua keta baliabide osagarriak esleitzea, prestakuntza eta aldaketa jarduerak laguntzen dituztenak, kalitate-programak ezartzetik eratorritakoak.
- Profesional talde desberdinak kalitate-sistemetan ezartzeko jarduerak diseinatzea zehaztutako prozeduren bidez (adibidez: kudeaketa-kontratuak).
- Kudeaketa klinikoan oinarritutako lan-eredua garatzea, kalitatea hobetzeko tresnatzat, etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza erreflexiboa kalitatezko jardueratzat bilduta.
- Erakundeen funtzionamenduaren kalitatea neurtzen duten parametroen ebaluazioa orokortzea (lidergoa, kohesioa, antolaketa-klima eta profesionalen asebetetzea).

#### **34. ESTRATEGIA: OSASUN-BEHARRETAN OINARRITUTAKO PLANGINTZA SANITARIOA SUSTATZEA, PROFESIONAL SANITARIOEN ETA HERRITARREN PARTAIDETZAREKIN.**

**Helburua:** Plangintza sanitarioa osasun-beharretara egokitzea.

##### **Jarduera-ildoak:**

- Autonomia Erkidego bakoitzean lehentasunezko osasun-estrategiak aldizka egitea, arduradun sanitario, profesional eta herritarren partaidetzarekin.
- Autonomia Erkidegoko eta estatu mailako osasun-estrategien arteko koordinazioa bermatzea.
- Osasun Sistema Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoen osasun-estrategien jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzea egiteko prozesuak sustatzea, profesional sanitarioen eta herritarren partaidetzako organoen aldetik.

#### **35. ESTRATEGIA: OSASUN-PLANGINTZETAN ETA OSASUN POLITIKAREN HELBURUETAN ZEHAZTUTAKO KONTRATUAK/KUDEAKETA-PLANAK SUSTATZEA.**

**Helburua:** Profesionala inplikatzeko osasun politikaren helburuetan.

##### **Jarduera-ildoak:**

- Kudeaketako lurralde eremuetarako planak Autonomia Erkidegoaren osasun-planetan eta Osasun Sistema Nazionalaren helburu eta estrategietan oinarritutakoak izatea sustatzea.
- Horniketa-unitate bakoitzerako kudeaketaren helburuak garatzea, erantzukizun indibiduala eta talde profesionalarena zehaztuta.

- Osasunaren testuinguruan lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko kudeaketa-kontratuen arteko lotura sustatzea.

### **36. ESTRATEGIA: BALIABIDEEN ESLEIPENA PLANGINTZA SANITARIOAN EZARRITAKO ZERBITZU-ESKAINTZAREN MAILAREKIN BAT ETORTZEA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Beharrezko baliabideak bermatzea zerbitzuak eskaintzeko.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Baliabideen esleipena zerbitzuen benetako eskaintzara egokitzea, berrikuntza-maila baloratuta.
- Osasuneko lehen mailako arretarako finantza-baliabideak handitzea, aurrekontu sanitario publikoen batez bestekotik gora, lehen mailako arretari beharrezko baliabideak eta tresnak eskaintzeko Osasun Sistema Nazionalean duen eginkizuna sendotzeko.
- Gastu sanitario publikoa ekitatez banatzea sustatzea Autonomia Erkidegoen artean; baita Erkidego bakoitzaren eremuan ere.
- Ebaluazio ekonomikoak egitea eskainitako zerbitzu desberdinen eraginkortasuna baloratzeko.

### **37. ESTRATEGIA: ERAKUNDEAREN LIDERGOA SUSTATZEA KALITATEZKO LEHEN MAILAKO ARRETAREN FUNTSEZKO TRESNATZAT.**

**Helburua:** Zuzendaritza-jarduerak hobetzea.



### **Jarduera-ildoak:**

- Arduradun politikoak inplikatzea lehen mailako arreta laguntzean.
- Kudeaketa-arduradunak inplikatzea erakundeko aldaketen buru izateko.
- Euren lankideen aitortpena duten profesionalen lidergo klinikoa sustatzea eta lidergo demokratikoak eta partaidetzakoak sustatzea.
- Prestakuntza sustatzea kudeaketa klinikoko prozesuak ezartzeko erakundearen lidergoa bere gain hartzen duten profesionali.

### **38. ESTRATEGIA: OSASUN-EREMUKO ZUZENDARITZAKO EGITURAK SUSTATZEA.**

**Helburua:** Zuzendaritza-egituren asistentzia-jarduerekiko laguntza hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Kudeaketa-autonomia sustatzea, arretaren antolaketa nahikoa malgutasunarekin ahalbideratzen duena, lege eta aurrekontu testuinguruan.
- Zuzendaritzaren eskumenen definizioa eta zuzendaritzaren funtzioaren kalitatearen ebaluazioa sustatzea (erabilerraztasuna, ebazpen-gaitasuna eta laguntza teknikoa, besteak beste).
- Aukeraketa-prozesuetan, zuzendaritzako kideek zehaztutako gaitasun maila egiaztatzea, egin beharreko eginbeharrei dagokienez.
- Zuzendaritzako kideen prestakuntza eta karrera profesionala garatzea kudeaketaren eremuan.

### **39. ESTRATEGIA: GOBERNU-ORGANOAK OSASUN-EREMUETAN SUSTATZEA, PROFESIONAL ETA HERRITARREN ORDEZKARITZAREKIN.**

**Helburua:** Gobernu-organoak garatzea osasun-eremuetan.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Araudi-garapena sustatzea, eremu bakoitzean gobernu organoen osaketa (ordezkaritza, instituzio eta gizarte irizpideen arabera), funtzionamendua, eskumena keta kontrol-prozedurak zehazten dituen.
- Profesionalak inplikatzeko estrategiak sustatzea, partaidetzako egiturak sortuta (batzordeak, batzorde fakultatiboak, etab.) kudeaketa-estragiak zehazteko.

### **40. ESTRATEGIA: OSASUN-ZENTROETAKO KUDEAKEAREN DESZENTRALIZAZIOA HANDITZEA EMAITZAK HOBETZE ALDERA**

**Helburua:** Zentroetako zuzendaritza eta profesionalen inplikazioa handitzea kudeaketan eta antolaketan.

#### **Jarduera-ildoak:**

- Erakundearen kudeaketaren eta lehen mailako arretako baliabideen mailakako deszentralizazioa sustatzea autonomia-maila desberdinekin.
- Deszentralizazioa laguntzea profesionalen partaidetza sustatuta erabakiak hartzean eta ebalua daitezkeen helburudun kudeaketa-kontratuak erabilia.
- Deszentralizaziorako estrategia desberdinak ebaluatzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Zentro bakoitzaren zerbitzu-eskaintzaren malgutasun nahikoa sustatzea tokiko beharrei erantzuteko, Autonomia Erkidego

bakoitzean eta Osasun Sistema Nazionalan ezarritako osasun-estrategiak kontuan hartuta, zerbitzuen eskaintzaren ekitatea bermatzeko.

- Osasun-zentroetako zuzendaritzako kideen eskumenen profila zehaztea emaitza onenak lortze aldera.
- Lehen mailako arretako zuzendaritza-kideen prestakuntza planifikatzea, kudeaketa eta antolaketa mailako prestakuntzako eskaintza sistematikoa sustatuta eta zuzendaritzaren egitekoaren kalitatea ebaluatzeko formulak ezartzea.

#### **41. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAKO TALDEAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIO EREDUA HERRITARREN OSASUN BEHARRETARA ETA ZERBITZU-ESKAINZARA EGOKITUTA, BERE KUDEAKETA SISTEMA SANITARIOAREN TESTUINGURUAN BERMATUTA.**

**Helburua:** Herritarren osasun-beharretara ondoen egokitzen diren antolaketa-ereduak sustatzea.

##### **Jarduera-ildoak:**

- Arreta-estaldura osatzea, lehen mailako arretako talde-ereduarekin Autonomia Erkidego guztietan.
- Taldeen antolaketa eta osaketa malgutzea, zerbitzu-eskaintzaren eta artatutako herritarren benetako beharren bateragarritasuna ahalbideratzeko.
- Taldeen antolaketa partekatutako arreta-programetara egokitzea, ospitaleekin edo gizarte zerbitzuekin ezarritakoetara, asistentzia-jarraipena eta integraltasuna zainduta.
- Antolaketako eredu desberdinak ebaluatzea sustatzea, prozedura definitu eta gardenen bidez, emaitzen jakinarazpena bermatuta.

- Osasun-beharrei egoki erantzun eta eraginkorrak direla erakutsi duten antolaketa-ereduak soilik orokortzea, Osasun Sistema Nazionalean ekitatea bermatuta.

#### **42. ESTRATEGIA: LEHEN MAILAKO ARRETAKO TALDEKO LANA EGONKORTZEA ETA INDARTZEA.**

**Helburua:** Lehen mailako arretan lan egiten duten profesionalen sinergiaz baliatzea.

##### **Jarduera-ildoak:**

- Osasun-zentroetan taldek olana eta erantzukizun kolektiboaren garapena sustatzea, diziplina anitzek olana lehen mailako arretako taldeen tresna eraginkorrena bezala hartuta.
- Lehen mailako arretako taldeen helburu komunak, eta profesional bakoitzarentzat berezitakoak, zehaztea.
- Taldean egitekoak banatzea, eraginkortasunean, erantzukizunen profesionalean eta arretaren pertsonalizazioan oinarrituta.
- Taldeko profesionalen arteko kohesioa sustatzen duten jarduerak ezartzea.
- Taldeko lana baloratzen duten irizpideak ezartzea karrera profesionalean kontuan hartu beharreko merituen artean.

#### **43. ESTRATEGIA: FAMILIA-MEDIKU, PEDIATRA ETA ERIZAINEN ARTEKO TALDEKO LANA ETA GARAPEN PROFESIONALA SUSTATZEA.**

**Helburua:** Mediku eta sendagileen jarduera profesionalak koordinatzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Gida klinikoak batera egitea osasun-arazoei aurre egiteko, talde profesional bakoitzaren inplikazioa eta jarduera-prozesuak zehaztuta.
- Profesionalen arteko erantzukizunak zehaztea eta horiek ebaluatzeko adierazleak ezartzea.
- Erizaintzako kontsultekiko herritarren erabilerraztasuna sustatzea; halaber, erizaintzako lanaren ebazpena eta eraginkortasuna.

## **44. ESTRATEGIA: INFORMAZIO SANITARIOKO SISTEMAK SUSTATZEA.**

**Helburua:** Lehen mailako arretaren gaineko informazioa hobetzea.

### **Jarduera-ildoak:**

- Lehen mailako arretako informazio-sistemek irizpide eta aldagai komunak izatea, adierazle gakoak zehaztuta, Osasun Sistema Nazional osorako parekagarritasuna bermatzeko profesional sanitarioen partaidetzarekin.
- Lehen mailako arretaren informazio eskuragarriari buruzko gardentasuna hobetzea.
- Autonomia Erkidego bakoitzak Osasun Sistema Nazionalari bere lurraldeko informazio guztiak eskaintzea sustatzea, lehen mailako arretako informazio-azpisisistemetatik lortutakoa (baliabideak, karterak, jarduera, etab.).
- Sistema sanitario publikoaren informazio-sistemen finantzazioa sustatzea.
- Osasun informazio-sistemak arretaren integraltasuna eta jarraipena laguntzea sustatzea, hornitzaile desberdinen sistemen bateragarritasun bermatuta.

- Informazio-sistemek herritarren onarpena izatea eta konfidentzialtasuna gordetzea bermatzea.